



www.begiko.com

Jatorrizko izenburua: THE LIBRARIAN AND THE ROBBERS

© 1978, Margaret Mahy

© 1978 eta 1983, Quentin Blake

© Itzulpena: 2018, Ane Barrenengoa

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-41-4

Lege-gordailua: M-19572-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Amaia Lasheras eta Usua Lasa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).


Liburuzaina eta gaizkileak

Margaret Mahy

Irudiak: Quentin Blake

begiko





I

Behin batean, gaizkile maltzur batzuek 5
Selene Laburnum andereñoa, liburuzai-
nik ederrena, bahitu zuten. Neskatila
basora bueltatxo bat ematera atera ze-
nean, gaizkileak gainera etorri zitzaiz-
kion eta eraman egin zuten.

—Zergatik bahitu nauzue? —galde-
tu zuen zurruntasunez—. Nire lagun
eta senideak ez dira aberatsak. Gainera,
umezurtz txiroa naiz eta ez daukat bene-
tako etxerik; liburutegia baino ez.

—Horixe interesatzen zaigu guri —esan
zuen Gaizkileburuak—. Ziur gaude he-

rriko Alkateak dirutza ordainduko duela zu bueltan izateko. Azken batean, liburutegi horrek ez du ondo funtzionatzen liburuzainik gabe.

6 Gaizkileburuak arrazoi zuen, batez ere Selene Laburnum zelako liburutegiko giltzen jabe bakarra.



—Gauza beldurgarri baten berri eman behar dizuet —hasi zen liburuzaina—. Lau seme-alaba dituen lagun batekin pasatu dut asteburua, eta denak elgorriak jota zeuden.

—Horrek ez dit axola! —Gaizkileburuak mespretxuz—. Nik jada pasatu dut!



—Baina nik ez! —oihu egin zuen ha-
ren alboan zegoen beste gaizkile batek.

Gainerako gaizkileek kezka aurpegiaz
begiratu zioten Laburnum andereñoari. 7
Izan ere, haietako inork ez zuen inoiz
gaixotasun beldurgarri hura pairatu.



Gaizkileen erreskate-gutuna Alkatearen eskuetara heldu zenean, eztabaida sortu zen zinegotzien artean, eta urduritasuna nagusitu zen.

8 —Nondik atera behar da dirua liburuzaina bahitzen dutenean? —galdetu zuen zinegotzi batek—. Langileria-gastuen aurrekontutik edo kulturaren sustapenerako funtsetik?

—Herriko Kultura Batzordea hemen-dik bi astera batzartuko da. Haiek erabaki dezatela zer egin! —proposatu zuen Alkateak.

Baina bilera hori gertatu baino askoz lehenago, gaizkile guztiek, Gaizkilebu-



ruak izan ezik, elgorria harrapatu zuten. Lehendabizi, suminkor bihurtu ziren, eta ondoren, sudurra gorritu eta mukiz bete zitzaien.

—Uste dut bainu beroak negela sortzen lagunduko duela —zalantzati Laburnum andereñoak—. Nire liburutegi kuttunean egongo banintz, «elgorri» hitza nire *Etxean Egiteko Erremedio Eraginkorren Hiztegi Praktikoan* begiratzeko aukera izango nuke.

Gaizkileburuak tristuraz begiratu zien bere konplizeei.

—Seguru al zaude elgorria dela? Gai-xotasun hori sufritzea oso iraingarria da gaizkile batentzat. Pikortak ez zaizkio ia



inori ondo geratzen, ba... pentsa gaizkile baten aurpegian: desastre hutsa! Seriotan hartuko zenuke gaizkile pikortsu bat?

10 —Gaizkileak, pikortsuak izan edo ez, seriotan hartzea ez dago liburuzain baten betebeharren artean— harrotasunez neskatilak—. Nolanahi ere, ezingo dira gaiztakeriatan ibili elgorria guztiz sendatu arte. Berrogeialdian daude. Edo... nahiago duzu elgorria leku guztietatik hedatzea eta horren errua zuri leporatzea?

Gaizkileburuak hasperen egin zuen.

—Baimena ematen badidazu —esan zuen andereñoak—, nire liburutegira joan




eta *Etxean Egiteko Erremedio Eraginkorren Hiztegi Praktikoa* maileguan hartuko dut. Hiztegi baliotsu horren laguntzaz, zure kideen sufrimendua baretzen ahaleginguko nintzateke. Hori, bai, astebeterako baino ezingo nuke hartu, liburutegian asko kontsultatzen den liburua baita. Ulertzen duzu, ezta?

11

Gaizkile gaixoen aieneak jasanezinak ziren haien buruzagiarentzat.

—Ondo da —onartu zuen—, liburua-
ren bila joan zaitezke. Bahiketaren kon-
tua albo batera utziko dugu oraingoz.
Baina oraingoz bakarrik, aditu duzu?







II

Handik gutxira, Laburnum andereñoa liburuz gainezka azaldu zen. 13

—Lehenik, bainu bero bat negela sortzeko! —esan zuen ozen irakurriz—. Gero, kobazuloa ilunpean jarri beharko duzue. Eta guztiz debekatuta dago karta-jokoan ibiltzea eta irakurtzea. Kontu handiz ibili behar da begiekin elgorriaz gaixotzean.

Gaizkileei aspergarria iruditzen zitzaien kobazulo ilunean etzanda egotea. Liburuzainak gaizkileen gorputzeko tenperatura neurtu zuen eta belarriko minik ba al zuten galdetu zien.

—Oso inportantea da hotzik ez har-
tzea —esan zien gaizkileei ohe-estalkiak
haien bizar korapilatsuetaraino igotzen
zituen bitartean. Hain estu sartu zituen
estalkiak ohe azpitik, ezen gaizkileak
ezin ziren mugitu ere egin—. Orain, kon-
takizun bat irakurriko dizuet entreteni
zaitezten. Zein dira orain arte irakurri di-
tuzuen liburuak?

Baina gaizkileek ez zuten haien bizi-
tza osoan ezertxo ere irakurri. Ozta-ozta
idazten eta irakurtzen zuten.

—Ederki! —esan zuen neskatilak—. *Ali Baba eta berrogei lapurrak* ipuinarekin



hasiko gara, eta gero, kontakizunen zailtasuna handituz joango gara.

Inork ez zien gaizkileei sekula santan irakurri. Sukarrak jota egon arren, arreta handiz entzuten zituzten Laburnum andereñoaren istorioak, eta amaitutakoan, gehiago eskatzen zioten. Gaizkileburuak ere adi-adi entzuten zituen kontakizunak, liburuzainak erientzako salda beroa prestatzeko agindua eman bazion ere.

15



—Gehiago jakin nahi dugu Ali Babari buruz! —oihukatu zuten gaixoek urduri—. Irakuriezaguzu *Txanogorritxuren* ipuina!

16 Robin Hood-en ipuinak urduritu zituen gaizkileak. Izan ere, Robin Hood, haiek bezala, lapurretan ibiltzen zen. Baina Robinek ideia zintzoagoak zituen, hala nola, lapurtutako dirua txiroei ematea. Gaizkileei ez zitzaien inoiz bururatu lapurtzen zutena txiroei ematea; dirua haientzat gordetzea, bai, ordea.



Handik gutxira, pikortak desagertzen hasi ziren eta gaizkileak gosez amorratzen zeuden. Laburnum andereñoak *Etxean Egiteko Erremedio Eraginkorren Hiztegi Praktikoa* hartu, eta eriondoentzat janari gozo-gozoa prestatzeko zenbait errezeta aurkitu zituen. Gaizkileburuari kopiatu zizkion orri zuri batean. Hark, liburu-zaina bahitzearen ideia baztertu zuenez, hiztegi baliotsua bahitzea pentsatu zuen. Baina Laburnum andereñoak ez zion horretarako baimenik eman.

17



—Liburutegiko bazkide askok kontsultatzen du liburu hori —esan zuen neskatilak—. Baina, noski, zer edo zer bilatu nahi baduzue, beti etor zaitezkete liburutegira eta nahi duzuen kontsulta egin.


18



Handik egun batzuetara, gaizkileak guztiz sendatu ziren eta Selene Labur-

num bere giltzekin itzuli zen liburutegi-
ra. Bahiketak aspaldiko kontua zirudien.
*Etxean Egiteko Erremedio Eraginkorren Hiz-
tegi Praktikoa* lehengo lekura itzuli zen,
liburutegiko apalen artera. Liburuzainak
berriz ireki zizkien liburutegiko atea
bahiketa-egunetan literatura-beharra ase
ezin izan zuten irakurle amorratuei.

19



İSİLİK

